

ARITZ USANDIZAGA - ARITZ SOUND SYSTEM

# “Musikak sentiarazten didana jendeari sentiarazteko beharra daukat”

■ Aritz Usandizaga musikarekin lotutako kontu ezberdinan sartuta ibili da azken urteetan: irratia, DJ, musika aldizkaria...

ARITZ Usandizagak bere aurreneko liburua aurkeztu zuen iazko Durangoko Azokan, ‘Bob Marley, begirunea, maitasuna eta askatasuna’ tituluarekin. Hori aitzakiatzat hartuta bere musika dendara hurbildu eta azkeneko urteetan bere pasioa izan denari buruz galdeitu diogu: musika. Izan ere, azken urteetan musikaren inguruko hamaiaka kotutan ibili da: Egin, Molotoff, Irrintzi eta Euskadi Irratian saioak eta kolaborazioak eginez, Aritz Sound System ezizenenarekin diskor jartzale lanetan aritzen da, Entzun eta Gaztetxulo aldizkarietan ere sartuta dabil, musika denda, Selektah Kolektiboa, eta abar.

■ **HERNANIKO KRONIKA:** Zer du musikak hain-bestek erakartzen zaituena?

ARITZ USANDIZAGA: musikak sentimenduak sorrarazten dizkit. Gauza bat da musikak sentiarazten dizuna pribatuaren bizieta, nire kasuan beharra daukat musikak sentiarazten didan hori zabaltzeko. Gustatzen zaidana egin nahi dudalako saiatzen naiz musika ogea bide bihurtzen, baina, argi dago ez dela arrazoi ekonomikoengatik soilik.

■ **Musika beltza etiketa jartzen diozu esku artean ibiltzen duzun musikari. Zer da hori?**

Musika era askotakoa izan daiteke eta sailkatu egiten da zertaz ari garen ulertzeko. Izen horren azpian dauden musika estiloak batzen dituena zera da,



Aritz Sound System.

Afrikatik kanporatuak izan ziren beltzen ondorengoeik sortutako musika dela. Bereien kultura alde batera uzteria behartu zituzten indarrez eta musikaren bidez espresio bide berriak sortu zituzten, ahozko tradizioarekin lotutakoak. Horrela sortu zen musika beltza eta hortik beste estilo batzuk garatu dira.

■ **Musika errebendikazioarako bidea dela pentsatzen duzu?**

Reggaearen kasuan oso garbi dago, baita Bob Marleyren kasuan eta Jamaikan ere. Han gehienek ez zekiten ez irakurten eta ez idazten. Berdina gertatzen zen esklaboen garian. Musika izan da askotan kultura transmititzeko modu

hoberena, erraza da ulertzeko eta gogoratzeko. Nik ez dut musika egiten, hori izan daiteke errebendikatzeko modurik hoberena, nik egina dagoen musika zabaltzen dut.

■ **Jendeak gustora entzuten al du zuk jartzen duzun musika?**

Orokorrean bai, oso gustora. Hala ere konturatu naiz jende askok ez duela musika hau ezagutzen. Kontua da, musika merkatu baten barruan sartuta dagoela eta merkatuaren kontrola enpresa indartsu batzuk dutela. Enpresa horiek bide jakin bat markatzen dute egiten dutenek irabaziak ateratzeko. Nik jartzen dudan musika ez dago bide horretan eta ni


■ Bob Marley eta bere inguruari buruzko liburu bat idatzi zuen eta lehengo urteko abenduan kaleratu zen.

■ “Ni ez naiz musika aditua, musika adiktua baizik” dio Aritzek musikak beretzat duen garrantziari buruz hitz egitean.

“Bob Marleyren biografia bada ere ez da biografia klasikoa, ez dut besterik gabe bere bizitzako kontatzen. Hori ia aitzakia bezala erabili dut bere inguruari buruz hitz egiteko. Bob Marleyri buruz asko hitz egin da baina azkenean Bob Marley bere inguruari daukan guztia ere bada.

Teorian gaztetxoei zuzendutako liburua da, baina mezuetan ez nuen bakarrik gazteengan pentsatu, agian gehiago pentsatu nuen helduengaran.

Asko pozten nau gai honi buruzko lehenengo euskarazko liburua dela ikustea, erdaraz badaude gai honi buruzko beste liburu batzuk, baita euskal idazleek idatziak ere”.



‘BOB MARLEY,  
BEGIRUNEA, MAITASUNA  
ETA ASKATASUNA’  
Aritz Usandizaga.  
2002, Txalaparta.

saiatzen naiz jendeari aukera ematen beste zerbaitekentzuteko.

■ **Zer iritzi duzu Euskal Herriaren egiten den musikari buruz?**

Esperantzarekin ikusten dut, dena daukagu-eta deskubritzeko. Euskal Herrian musicalki jaioberriak garela iruditzen zait baina asko daukagu ikasteko eta hori oso ona iruditzen zait.

■ **Jendeak dantza asko egiten al du Euskal Herrian?**

Dantzan gutxiengoa aritzen da eta hori jaso dugun hezkuntzagatik izan daiteke neurri handi batean. Dantza espresio bide bat da eta gero eta gehiago sentimenduak ez adieraztea bultzatzen da. Bestalde, norbait dantzan ari denean drogatua

dagoela pentsatu ohi du jendearik, badirudi drogak behar ditugula askatzeko eta sentimenduak adieratzeko.

■ **Ingelsezko hitz pila bat erabilitzen da musika munduan, zer dela eta?**

Inperioaren hizkuntza delako, gizarte angloajoiaren ohiturak inposatu nahi dizkigutelako. Dena den, zenbait jendek esaten dit euskal musika bakarrik jarri behar nukeela, baina hori ere nire buruari mugak jartzea dela iruditzen zait. Bakotzak argi izan behar du non bizi den eta zein den bere kultura, hori da azkenean garrantzitsua dena. Gainera beste kulturetatik ikasten eta gozatzen ikasi behar dugu, errespetuan oinarritutako harreman batean. □

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2.eskukoez aldatzen ditugu

Jeep Cherokee 2.5	TDI	SS-BB
SAAB 2000 Coupe		1.995urtekaoa
Fiat 1 -	Diesela	GI-AY
Opel Astra	Diesela	NA-AK
Renault Megane Coupe	Sport	SS-BJ
Renault Express	Diesela	SS-AS
Lada Niva	Gasolina	SS-AP
1.000 eta 2.000 eurotan beste hainbat kotxe		
...eta hainbat kotxe merke		



Uztailak 31, osteguna, San Inazio eguna

**MENU BEREZIAK**

Zatoz egun eder bat pasatzera.

Bi aparkaleku, bi jangela, jolastokia eta menu bereziak.

Trikitiarekin girotuko dizugu eguna.

Deitu menuen berri jakiteko eta tokia aldez aurretik hartzeko.



Marraka-Enea Baseria  
Sta Barbara auzoa 92 -HERNANI  
Tel.: 943 556 481-943 554 675

## SANTIOAK ASTIGARRAGAN ETA ARANON




Idi demak eguraldi berotan egin zituzten atzo Astigarragan, Plaza betean.

## Festetako azken eguna gaur

SANTIOAK gaur sartuko dira azken egunean Astigarraga eta Aranon. Festetan jende asko ibili da ekitaldi gehienetan, giroa ere noranahira joateko modukoa egin baitu azken egunetan.

Santio eguna da Aranon jende asko ibiltzen dena, herri kiroletan eta bertsosaoian batipat. Plaza bete egin zen herri kiroletan eta bertsosaoian.



Sagardo probaketa atzo.

saoian ere jende asko gelditzen eta giro ederra izan zuten bertsolariek. Astigarragan atzoeko egunarekin arrakasta jakinekoa izaten da. Bero izugarria egin zuen eta sagardoari freskagarri ona iritzi zion jendeak idi demak ikusi bitartean.

### Gaur bukaera

Aranon, Arano eta Goizuetaren arteko partiduak jokatuko dira kadete mailan. Umeentzako gorritiren show-a egongo da gero, eta iluntzean pailazoak

daude. Azken urteetan berreskuratu duten artzai txakur erakustaldia dago arratsalde bukaeran Aranon: parte hartzialeak Mikel Aizpurua Beti txakurrarekin, Joxe Antonio Arrillaga Mendirekin, Iñaxio Etxeberria Argirekin eta Mikel Garaiar Misiju Undarekin.

Astigarragan, Iker Ruizoren oroi menezko saskibaloitxapelketa dago, antzerkia eta festei bukaera emateko su artifizialak Zezen suzkoia eta txaranga daude, besteak beste.

### EGITARAUAK

#### ARANON GAUR

- 10:00 Meza Nagusia eta ondoren goiz soinua.
- 12:30 Arano eta Goizuetako kadeteen pelota partidua.
- 18:00 Gorritiren Show-a. Ondoren txokolatada.
- 19:30 Artzai-txakurren erakustaldia.
- 22:00 Potxin eta Patxin pailazoak.

#### ASTIGARRAGAN GAUR

- 07:30 Sokamuturra.
- 09:30 Txistularien Diana.
- 10:00 Iker Ruizoren Oroi menezko III. Saskibaloitxapelketa Herrikoia, kiroldegian.

### IGERIKETA -EUSKADIKO TXAPELKETA

## Lau domina lortu ditu Hernanik eta Oihane Sanz Espainiako txapelketarako sailkatu da

EUSKADIKO txapelketak jokatu berri dira Iruñan eta hernaniarrak ondo aritu dira berri ere. Andrea Izagirre, Iara Jimenez, Olatz Altuna, Oihane Sanz, Eider Estibariz, Ion Casas, Artur Casas, Peru Alfaro, Mikel Andres eta Mañel Aizpurua hartu dute parte Hernanitik eta lau medaila ekartzea lortu dute kategoria desberdinatetan: Iara Jimenezek zilarra 50 metro bularrean, Oihane Sanzek brontzea 100 metro librean, Olatz Altunak brontzea 50 metro librean eta Oihane Sanzek zilarra 50 metro librean. Bestalde, Oihane Sanzek Espainiako txapelketan parte hartu ahal izateko minima egin zuen eta Olatz Altuna oso gutxira gelditu da eta aukera haundiak ditu oraindik egiteko. Espainiako txapelketa abuztuaren 6tik 10era jokatuko da Palma de Mallorcan. □



Oihane Sanz bigarren postuan.

## Bertso bazkaria gaur Arrigoainen

■ Joxe Agirre, Jokin Sorozabal eta Iñaki Zelaia ariko dira Morkaiako kultur taldeak antolatuta.

BERTSO bazkaria dago gaur Arrigoain jatetxean, Harrobi-an. Hiru bertsolari ariko dira kantuan, Hernaniko Iñaki Zelaia, Andoaingo Jokin Sorozabal eta Azpeitiko Joxe

Agirre. Gaurko saioa Morkai-ko kultur taldeak antolatu du, San Inaziolan Santa Barbaran antolatzen duten festaren bueltan. Bazkari txartelak 15 eurotan daude salgai. □



Mac Jeara's Band taldea kontzertu batean.

## Mac Jeara's Band taldea Jazzaldian gaur, Kuarsaal ondoan

■ Arratsaldeko 19:00etan joko dute Frigo eszenatokian ■ Bihar Zarautzen ariko dira.

DONOSTIAKO Jazzaldia martxan da dagoeneko eta Mac Jeara's Band taldea kontzertuko aukera izango da gaur, Kursaal ondoko Frigo eszenatokian. Taldea zortzi lagunek osatzen dute eta hiru Hernaniarrak dira: Ander Barrenetxea, Ainara Ortega

eta Roberto Pacheco. Bihar, bestalde Zarautzen dute kontzertua, 20:00etan hon-dartzan eta asteazkenean, Tolosan joko dute. Abuztuaren bian Azkoitian dute kontzertua eta bostean Donostian, Musika hamabostaldiaren hasieran. □

### IRAGARKI MERKEAK

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukaldetza eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

Hernaniko Pelukeria batean estetika lanak egiteko pertsona bat behar degu. Deitu: 943 55 63 68

Hernaniko taberna batek pertsona bat behar du lancerako. Kondizio onak. Interesatuek deitu: 660 982 145 edo 678 058 003.

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

- |                       |            |
|-----------------------|------------|
| ► Taxiak:             | 943 550093 |
| ► Udaltzaingoa:       | 943 333288 |
| ► DYA:                | 943 464622 |
| ► Autobusak:          | 943 556662 |
| ► Anbulatorioa:       | 943 006666 |
| ► Jokalari anonimoak: | 943 331103 |

#### FARMAZIAK

- |           |   |
|-----------|---|
| ► Egunez: | Bulnes<br>Florida auzoa<br>☎ 943 557738       |
| ► Gauez:  | Tanco<br>Urnieta. San Juan 36<br>☎ 943 550942 |



*Eskerrik asko,  
Santio jaietan bisitatu  
gaituzuen guztioi!*

**KIZKI TABERNA**  
Kale Nagusia 29 - 943 330647  
ASTIGARRAGA  
Urte osoan, bokatarik  
onenak. Udaran terraza.



**ARALAR TABERNA**  
Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06 -